

TXIRRISTRA 1-2 urteko haurren gelan

Gure gelako txoko batean txirristra bat dago. Egurrezkoa da eta goian balkoi itsura hartzen duen espazio karratu bat du. Azpian, berriz, txoko polit bat dauka; haurrak intimitatean egon litezkeen txokoa.

Egunean zehar neska-mutikoak ibiltzen dira gora eta behera. Txirristra honek hitz egingo balu gertakizun asko kontatuko lizkiguke: bertan zer gertatzen den, haurrek zer bizitzen duten;poza, tristura, edo frustrazioa gisako sentimenduak...

Haurrak trebatuz doazen neurrian eta euren burua gai ikusten dutenean, txirristrara hurbiltzen dira; poliki-poliki eskailerak igo eta gora iristen direnean a zer nolako poza islatzen den beraien aurpegietan! Barandari heldu eta balkoitik begira ari balira bezala jarrita, bere lorpenaren partaide zuzenak egin nahi gaituzte, harrokeriaz guri deituz. Gu, hezitzaileok, horretaz ohartzen gara eta beraien pozarekin bat egiten dugu.

Hurrengo pausoa txirristratik jaitea izango da eta hau gertatu bitartean behin eta berriz igo eta goian geldituko dira. Hasera batean gure laguntzaz jaitsiko dira. Uiiiiiii... a ze sentazio polita! Prozesu hau ez da nolana hiko: zaila egiten zaie ongi kokatzea eta ondoren txirristratik jaitea; alegia, askatu eta beraien burua goitik behera botatzen uztea. Errepikapenaren bitartez eta beraien burua ziurrago ikusten dutenean, bakarrik jaisten hasiko dira, normalean etzanda, auspeska. Behera iristerakoan, bakarrik jaitsi direla ohartzen dira, harridurak eta pozak, biak bat egiten dute eta goranzko bideari ekiten diote berriz.

Haur bat baino gehiago askotan topatzen dira txirristran, bai eskailerak igotzerakoan eta baita goian dagoen espazioan ere. Haur bat jaisteko prestatzen ari denean besteek zain egon behar dute; itxoin egin behar dute, elkarren ondoan egoten dira, elkar ukituz. Istiluak sortzen dira bai, normala da. Normala da etengabe gora eta behera ari direla kontuan hartzen badugu. Haur bat poliki joan liteke, besteak azkarrago joan nahi du, zapaldu egiten du beraz. Besteren bat txirristran tratatzen da ezin jaitsirik eta ondorioz besteek ezin dute pasa. Txirristran gora igotzea ere oso gustukoa dute eta eta lagunena bat jaisten ari bada, erdian topatuko dira, bitakoren batek mina hartuz...

Zenbat gauza eta egoera gerta litezkeen honen inguruan! Gure presentzia beharrezkoa da beraz. Gure begirada askotan zuzendu behar dugu txirristrara bertan gertatzen ari denaren testigu izateko. Arrisku egoerak aurreikusten ditugunean ekidin behar ditugu.

Elkarrekin harremanetan jartzeko toki aproposa da. Goian elkartzen direnean jolasa probokatzen dute, balkoitik harrokeriaz begiratuz edo pilotak boteaz besteek jaso ditzaten...

Txirristra!: zenbat maite zaituzten haurrek!!!

Zer ote daukazu haurrak behin eta berriz zure inguruan mugitzeko? Zuri esker, jolasten duten bitartean, haurrak hainbat gauza lantzen eta ikasten ari dira: itxaroten ikastea, txandak errespetatzea, elkarrekin jostatzea, elkarri zirikatuz jolasak asmatzea, haur bakoitzaren gaitasunak zein diren deskubritzea, euren gorputza gero eta gehiago kontrolatzea...

Benetan gure gelako parte garrantzitsua zara.

Kontuuuuuz.....banoala beheeeeeeraaaaa...!!

